

**ZINEUSKADI 2025  
(2/2025)**

**“ZINEUSKADI”**

**“Ikus-entzunezkoen profesionalei Euskal Autonomia  
Erkidegoaz kanpo egiten diren merkatu, azoka, ekitaldi  
profesional, inkubagailu eta laborategietan parte hartzen  
laguntzeko deialdia”**

## **2/2005 deialdia, otsailaren 6koa, ikus-entzunezkoen profesionali Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpo egiten diren merkatu, azoka, ekitaldi profesional, inkubagailu eta laborategietan parte hartzen laguntzeko deialdiko oinarriak jasotzen dituen**

Donostiako ZINEUSKADI elkarte irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da. Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean xedatutakoari heltzen dio, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Elkartearen helburuen artean dago euskal ikus-entzunezkoen sektoreari bultzada estrategikoa ematea, eta, ondorioz, sektore hori osatzen duten enpresen eta profesionalen garapenean laguntzea, baita estatuan, Europan eta nazioartean heda daitezen ere.

Halaber, nazioko eta nazioarteko sare profesionalen sorrera sustatzen da, eta Europako ikus-entzunezko ondarea eta aniztasuna babesten da. Horretarako, arreta berezia jartzen zaie ahalmen komertzial ahulena duten eta hegemonikoak ez diren hizkuntzetan egiten diren ekoizpenei.

Hori dela eta, Zineuskadi Elkarteak egokitzen du ikus-entzunezko jardura profesionala babestea, eta zinema-produkzioaren arloko Euskadiko profesionali laguntzak ematea, nazioarteko ikus-entzunezkoen sektorearekin lotzen diren azoka, merkatu eta ekitaldi profesionaletan parte har dezaten.

Ekimen honen helburuen artean dago alderdi hauek babestea: sektoreak nazioartekotzeko egiten duen ahalegina; koprodukzioa; kultura-ekoizpenenetarako irtenbide komertzial berrien bilaketa; eta Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-eragileen eta nazioarteko eragileen arteko topaketa eta trukeen sustapena.

Azaldutako guztiagatik, legezko oinarriak mugatuko dituen tresna bat ezarri beharko da, batetik, laguntzak emateko prozesuan objektibotasun, lehia eta publizitateko printzipioak berma ditzan, eta, bestetik, deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera esleitu diren funtsak —onartutako aurrekontu-esleipena mugatuta— behar bezala erabiliko direla jakitea ahalbidetuko duten mekanismoak berma ditzan. Europako Batzordearen 651/2014 Erregelamenduaren arabera —651/2014 (EB) Erregelamendua, 2014ko ekainaren 17koa, Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen—, laguntzen araubide hori Europako Batzordeari jakinarazteaz salbuetsita dago, eta barne-merkatuarekin bateragarria da Itunaren 107. artikuluen 3. paragrafoaren arabera, 651/2014 Erregelamenduaren 53. artikuluko eta I. kapituluko baldintza guztiak betetzen baititu.

Horregatik guztiagatik,

XEDATZEN DUT

## Lehenik.- Xedea

1. Deialdi honen xedea da ikus-entzunezko sektoreko profesionalei **2025eko** ekitaldian dirulaguntzak emateko oinarriak ezartzea, merkatu, azoka edo ikus-entzunezko sektoreko ekitaldi profesionaletan parte har dezaten eta **Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpo 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 20ra bitartean egiten diren** inkubagailu eta laborategietan parte har dezaten.
2. Eranskinetan adierazitako ekitaldiak sartuko dira deialdi honen barruan.
3. Merkatu, azoka edo ekitaldi profesionalen kasuan, industria-atalera joatea soilik hartuko da kontuan. Jaialdiaren edo erakustaldiaren atalean soilik parte hartzea ez da parte-hartzetzat hartuko.

## Bigarren. - Onuradun izateko baldintzak

1. Deialdi honetara aurkeztu ahal izango dira Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuaren (ICAA) Zinematografiako eta Ikus-entzunezko Enpresen Administrazio Erregistroan inskribatuta dauden eta helbidea edo egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak, betiere:
  - a) Azokara, merkatura, ekitaldi profesionalera, inkubagailura edo laborategira joan direla dokumentu egokiaren bidez egiaztatzen badute. Gonbidapena izanez gero, jasotako email ofiziala onartuko da.
  - b) Azoka, merkatu, ekitaldi profesional, inkubagailu edo laborategi horretara joateko ikus-entzunezko proiektu bat badute. Proiektu horri alta eman behar zaio Basque.Audiovisual markaren webgunean. Laguntza eskatzeko, ezinbestekoa izango da merkatu horretara zein proiektuekin joan zen adieraztea.
  - c) Proiektu bakoitzeko ordezkari bat onartuko da, eta proiektua Euskadiko bi enpresaren artean koproduzitzen ari bada, bi enpresa horietako baten asistentzia baino ez da ordainduko. Jaialdi, merkatu edo ekitaldi profesionalak pertsona bat gonbidatu badu, ezin izango da bigarren pertsona batentzako laguntza eskatu.
  - d) Basque.Audiovisual markaren webgunean inskribatutako obraren jatorrizko hizkuntza euskara bada, taldeko edo enpresako bi ordezkari onartuko dira.
  - e) Aurreko ekitaldian estatuan modu komertzialean estreinatutako proiektuen eskabideak ez dira onartuko.

## 2. Ez dituzte laguntzak jasoko:

- a) Epai irmo bidez, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzera zigortutako pertsonak, edo prebarikazio, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoen bidegabeko erabilera, eragimen-trafiko, iruzur, legearen aurkako ordainarazpen edo hirigintzako delituak egiteagatik zigortutako pertsonak.
- b) Borondatezko konkurtso-deklarazioa eskatu duten pertsonak, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratu diren pertsonak, edo konkurtsoan deklaratu diren pertsonak —salbu eta prozedura horretan hitzarmen batek eraginkortasuna hartu badu—, esku-hartze judizialaren mende deklaratu diren pertsonak edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaitu diren pertsonak, betiere konkurtsoaren kalifikazio-epaian finkatutako desgaitze-aldia amaitu ez bada.
- c) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin duten pertsonak, suntsiaraztearen kausaren errudun deklaratu badituzte.
- d) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez dituen pertsona, arauk zehaztutako moduan.
- e) Egoitza fiskala arauk zerga-paradisua kalifikatutako herrialde edo lurralde batean duen pertsona.
- f) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean ez dituen pertsona, arauk zehazten duten moduan.
- g) Ekonomia zirkular baterako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste larri edo oso larri baten ondorioz, eta administrazio-ebazpen irmo baten bidez, zigortuta dagoen pertsona, betiere dagozkion neurri zuzentzaileak gauzatu eta zehapena ordaindu arte.
- h) Lanpostuak desgaitasuna duten pertsonen alde erreserbatzeko ezarritako legezko kuota bete ez duen pertsona, baldin eta ez badu kuota hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri izana frogatu.
- i) Laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zigor administratibo edo penala duen pertsona, edo horretarako desgaitzen duen legezko debekuren bat duena, barnean direla sexu-diskriminazioaren ondorioz gertatutakoak —Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera—, betiere dagokion zehapena ezartzen den aldian. Era berean, ezingo dituzte laguntzak edo dirulaguntzak jaso Estatuaren araudiaren arabera berdintasun-plana eduki behar duten baina halakorik indarrean ez duten enpresek, ezta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena saihesteko eta jazarpen horiei aurre egiteko neurriak ezarri dituztela frogatzen ez duten

50 langile baino gehiagoko enpresek ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Estatuko legeriak ezarritako baldintzetan.

- j) Laguntza bat legez kontrakoa dela eta merkatu erkidearekin bateraezina dela deklaratu duen Europako Batzordearen alde aurreko erabaki baten ondoren, berreskuratzegindu baten mende dauden pertsonak.
- k) Krisian dauden enpresak —krisian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-dirulaguntzei buruzko zuzentarauen definizioaren arabera (DO, C249, 2014-07-31)—. Termino hori Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 18. paragrafoan definituta dago.
- l) Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua betetzen ez duen eskatzailea.
- m) Elkartzeko eskubidea arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. paragrafoetan aurreikusitako debeku-kausen eraginpean dauden elkarteak ezin izango dira, inola ere, lege honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan.
- n) Sektoreko elkarte profesionalak.
- o) Zinemaldiak.
- p) Basque.Audiovisual markaren webgunean alta emanda ez dagoen ikus-entzunezko lan aktiborik ez duten pertsonak edo entitateak.
- q) Finantzaketa, koprodukzio, banaketa eta/edo salmenta-agente bila merkatura joaten ez diren pertsonak eta entitateak, eta banatzeko proiektuen bila ari ez diren banatzaileak.

## **Hirugarren. - Baliabide ekonomikoak eta laguntzen mugak**

1. Deialdi honetan aurreikusitako laguntzetarako aurrekontua 56.000 €-koa da, eta honela banatuko da:

- a) 25.000 €, 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko ekainaren 15era bitartean nazioarteko merkatu, azoka eta ekitaldietara joateko sortutako gastuak estaltzeko.
- b) 25.000 €, 2025eko ekainaren 16tik 2025eko abenduaren 20ra bitartean nazioarteko merkatu, azoka eta ekitaldietara joateko sortutako gastuak estaltzeko.
- c) 3.000 €, 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko ekainaren 15era bitartean inkubagailuetara eta laborategietara joateko.
- d) 3.000 €, 2025eko ekainaren 16tik 2025eko abenduaren 20ra bitartean inkubagailuetara eta laborategietara joateko.

Deialdi honen babesean eman daitekeen laguntzaren gehieneko zenbatekoa, tarte eta onuradun bakoitzeko, **3.000 €**-koa da nazioarteko merkatu, azoka edo ekitaldietara joateko, eta **500 €**-koa laborategietara edo inkubagailuetara joateko.

2. Deialdiaren lehen tartean aurrekontu-soberakinik badago, soberakin hori gehituko zaio dagokion modalitateko bigarren tarterako aurreikusitako aurrekontuari.

3. Eskabide kopurua dela-eta, tarteren batean ezarritako zuzkidura gainditzen bada, ekitatez banatuko da laguntza, baldintzak betetzen dituzten espediente guztiak estal daitezzen.

## **Laugarren. - Diruz lagundu daitekeen gastua**

1. Deialdi honen ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jarduera motari erantzuten dioten eta ezinbestekoak diren gastuak, baldin eta deialdi honetan ezarritako epean egiten badira. Diruz lagundu daitezkeen gastuen kostuak ezin izango du, inola ere, merkatu-balioa gainditu. Era berean, diruz lagundu daitezkeen gastuek Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 53. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute.

2. Gastu hauek onartuko dira:

a) Taldeko edo enpresako ordezkari bati, azoka, merkatu, nazioarteko ekitaldi, inkubagailu edo laborategietara joateko, sortzen zaizkion joan-etorrien, ostatuaren eta dieten gastuak eta akreditazio-gastuak.

Presentzia online bada, taldeko edo enpresako bi ordezkariren akreditazioa ordainduko da.

b) Standa alokatzearen eta egokitzearen gastuak.

c) Ez dira inola ere diruz lagunduko a) eta b) puntuetan jasotako bi kasu horiez kanpo dauden gastuak. Era berean, BEZ kengarriaren zenbatekoa ez da inola ere diruz lagundu daitekeen gastua izango, baldin eta pertsona edo entitate onuraduna zerga horren aitortpena egitera behartuta badago.

d) Arrazoibide hori aplikatuko da eskatzailearen gastuak ez badaude gonbidapen bidez ordainduta, edo laborategiaren edo inkubagailuaren beraren oinarriek gastuen estaldura barne hartzen ez badute.

3. Diruz lagundu daitezkeen gastuak dokumentu hauen bidez egiaztatuko dira:

a) Bidaia hegazkinez edo trenez egin denean: ontziratze-txartela, akreditatutako pertsonaren izena jasotzen duena, eta pertsona edo enpresa eskatzailearen izenean egindako faktura.

- b) Bidaia garraiobide publikoan egin denean: bidaia-txartel arruntaren kostua.
- c) Gainerako gastuak legez egindako tiket edo faktura bidez egiaztatuko dira.

#### 4. Hauek izango dira gastuaren mugak:

- a) Joan-etorriak norberaren autoan: 0,25 euro/km gehi autobideko eta aparkalekuko gastuak. Kilometroak kalkulatzeko, eskatzailearen egoitza soziala edo establezimendua hartuko da abiapuntutzat.

Kilometroaren kontzeptupean eman daitekeen gehieneko zenbatekoa kalkulatu da eskatzailearen egoitza sozialetik edo establezimendutik merkatua, azoka, nazioarteko ekitaldia, inkubagailua edo laborategia egiten den lekuraino dagoen kilometro kopuruaren arabera (joan-etorria):

- 5.000 km baino gehiago badaude: 1.000 euro.
- 1.201 eta 5.000 km arteko distantzia badago: 800 euro.
- 1.200 km baino gutxiago badaude: 500 euro.

- b) Joan-etorriak alokatutako ibilgailuan: alokairuaren kostua, erregaia eta autobide- eta aparkaleku-gastuak. Ez da diruz lagundu daitekeen gastua izango helmugaren barruko joan-etorrietarako egiten den alokairua.
- c) Jaialdiaren barruko bidaiak sartzen dira, hau da, hoteletik barrutirako bidaietarako taxi, autobus edo treneko tiketak, horiek justifikatu ondoren.
- d) Ostatu-gauak: gau bakoitzeko 75 euro Espainian, 120 euro Espainiaz kanpo.
- e) Mantenu-dietak: dieta osoaren zenbatekoa 40 eurokoa izango da pertsona bakoitzeko Espainian, eta 60 eurokoa Espainiaz kanpo.

### **Bosgarren. - Emakida-prozedura**

Deialdi honen kontura ematen diren laguntzak banaketa proportzionaleko prozeduraren bidez emango dira, betiere aurkeztutako gastuen arabera. Edonola ere, hirugarren eta laugarren xedapenetan jasotako laguntzaren gehieneko mugak errespetatuko dira.

### **Seigarren. - Eskabideen aurkezpena**

1. Eskabideak aurkezteko epea **deialdi bakoitzaren amaiera-egunaren hurrengo egunean hasiko da, eta aldi bakoitzaren azken egunaren ondorengo 15 egunetan amaituko da.** Laguntza-lerro honek bi zati ditu: lehena, **2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko ekainaren 15era bitarteko** aldia estaltzeko, eta bigarrena, **2025eko ekainaren 16tik abenduaren 20ra bitarteko** gastuak arintzeko.

Lehenengo tarteko eskabideak aurkezteko epea 2025eko ekainaren 16tik uztailaren 1era bitartekoa izango da, eta bigarren tarteko eskabideak aurkezteko epea 2025eko abenduaren 21etik 2026ko urtarrilaren 5era bitartekoa.

2. Ez da azken egunaren ondoren bidalitako eskabiderik onartuko.
3. Eskabideak I. eta II. eranskinetan agertzen diren eskabide-ereduetan formalizatuko dira, eta zehazten den dokumentazioa erantsiko da. Eskabide horiek helbide honetara bidali beharko dira: [info@zineuskadi.eu](mailto:info@zineuskadi.eu).

Jasotzat joko dira hartu-agiri elektronikoa eta Zineuskadi Elkarteak esleitutako espediente-zenbakia duten eskabideak.

4. Pertsona edo entitate eskatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntzatan aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta erantsitako egiaztagiriak. Era berean, eskabidearen ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan zehar, pertsona edo entitate eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, Euskara Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2 a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.
5. Eskabideak aurkezteak berarekin dakar berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan definitzen diren baldintzak.

## **Zazpigarren. - Baldintzak egiaztatzea eta eskatzen den dokumentazioa**

1.- Eskatzaileari buruzko dokumentazioa:

- a. Elkarteak edo fundazioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren edozein erregistrotan inskribatu izanaren egiaztageria.
- b. Nortasun juridikoa duten beste entitate batzuk:
  - Eratze-eskritura eta estatutuak.
  - Identifikazio fiskaleko zenbakia egiaztatzen duen txartela.
  - Pertsona juridikoaren legezko ordezkariaren nortasunaren egiaztageria, eta hark duen ordezkariaren ahalordearen egiaztageria.
- c. Pertsona fisikoak, nortasun-zenbakia egiaztatzen duen txartela.
- d. Edozein kasutan, onuraduna zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duen agiria.
- e. Aipatutako dokumentazioa aldeztatik aurkeztuz gero, ez da beharrezkoa izango berriro aurkeztea, baldin eta hura aurkeztera behartu zuen gertakariari buruz behar besteko informazioa ematen bada.

2.- Gastuei buruzko dokumentazioa:

- a. Parte hartu den merkatu bakoitzaren jarduera-txostena.
- b. Finantzatu beharreko jardueraren aurrekontu egikaritua, ereduaren arabera.
- c. Egindako gastua justifikatzen duten dokumentu guztiak jasotzen dituen zerrenda

sailkatua (fakturak eta bankuko egiaztagiria). Ez dira onartuko ordainagiriarekin batera aurkezten diren eskatzailearen izenean egindako fakturak —bazkarien, bidesarien eta/edo taxien tiketak izan ezik—.

## **Zortzigarren. - Erantzukizunpeko adierazpenak**

Honako inguruabar hauek erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu beharko dira, eskabidearekin batera:

- a. Bigarren xedapenaren bigarren puntuan jasotako kausetako bakar batean ere ez egotea.
- b. Aurkeztutako datuen eta erantsitako dokumentazioaren egiazkotasuna, eta indarrean dagoen araudian laguntza honen onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzea.
- c. Beste administrazio edo entitate publiko zein pribatuen beste ekarpen batzuk, xede eta helburu berekoak. Onuradunak eskatutakoaz bestelako laguntzarik jaso ez badu, horren berri ere emango du.

## **Bederatzigarren. - Laguntzen kudeaketa**

ZINEUSKADI elkarteari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

## **Hamargarren. - Aurkeztutako eskabidean akatsak zuzentzea**

Laguntza-eskabidea osorik eta behar bezala betetzen ez bada, ZINEUSKADI Elkarteko zerbitzu teknikoek antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko diote eskatzaileari.

Eskaera hori eskatzaileak jakinarazpenetarako adierazitako helbide elektronikora bidaliko da —helbide horrek operatibo egon beharko du prozesu osoan zehar—. Eskaera horri erantzun ezean, eta 10 eguneko epean akatsa zuzendu ezean, eskabidea aurkezteari uko egin zaiola ulertuko da.

## **Hamaikagarren. - Balorazio Batzordea**

1. Aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz arduratuko den Balorazio Batzordea eratuko da. Kide hauek izango ditu:

- a) ZINEUSKADiko presidentea: edo, bestela, hark ordezkotzen duena.
- b) ZINEUSKADiko nazioartekotze-arduradunak.

2. Ezarritako esleipen-irizpideetan oinarrituta, Batzorde horrek laguntza emateko proposamena egingo du, eta ZINEUSKADI Elkartearen Zuzendaritza Batzordeari helaraziko dio proposamena.

3. Balorazio Batzordeak bidezko argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei, baldin eta aurkeztutako eskabideak behar bezala ebaluatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen badu.

## **Hamabigarren. - Ebazpena eta jakinarazpena**

1. Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatu ondoren, Balorazio Batzordeak txostenak eta laguntzak emateko proposamenak bidaliko dizkio ZINEUSKADI Elkartearen Zuzendaritza Batzordeari, ondoren Elkarteko presidentek laguntzak emateko erabakia eman dezan.

2. Deialdi honetako laguntzak emateko erabakia ZINEUSKADIren web-orrian argitaratuko da, edonork izan dezan horren berri. Horrez gain, posta elektronikoz ere jakinaraziko zaie laguntzen eskatzaileei. Egiten den lehen jakinarazpenaren data hartuko da jakinarazpen-datatzat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko sei hilabeteko epea izango da gehienez, dagokion eskabidea aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori amaitu eta jakinarazpenik egin ez bada, interesdunek dirulaguntzaren eskaera onartu dela ulertu ahal izango dute.

## **Hamahirugarren. - Bateragarritasunak**

Deialdi honetan emandako laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein entitate publikok edo pribatuk helburu berarekin eman ditzakeen beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabideekin, betiere gainfinantzaketarik eragiten ez badute. Hala gertatuz gero, laguntzaren zenbatekoa dagokion mugaraino murriztuko da, gainfinantzaketarik sor ez dadin.

## **Hamalauugarren.- Pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak**

Deialdi honetan araututako laguntzen onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Emandako laguntza onartzea. Laguntza eman izanaren jakinarazpena jaso eta hamabost egun balioduneko epean entitate onuradunek ez badiote laguntzari berariaz uko egiten, onartu dutela ulertuko da.
- b) Proiektuaren fitxa sortzea webgunean eta **Basque.Audiovisual** markaren katalogoan, eta Proiekturako informazio garrantzitsua eguneratuta mantentzeko konpromisoa hartzea.

- c) ZINEUSKADI elkarteak, bere zereginak betetzeko, eskatzen dion informazio guztia ematea.
- d) ZINEUSKADIRi jakinaraztea helburu bererako beste laguntza edo dirulaguntza batzuk jaso dituela estatuko edo nazioarteko edozein administrazioaren eskutik edo edozein ente publiko edo pribaturen eskutik.
- e) Onuradunek informazio, publizitate eta sustapen guztietan diruz lagundutako proiektuak direla adierazteko konpromisoa hartzea, baita ZINEUSKADI Elkartearekin lankidetzan egindako orotariko hedapenetan ere.
- f) Laguntzaren xede den jardueran edo proiektuan sortzen diren dokumentazio eta material guztietan, hizkuntza eta irudiak errespetuz erabiltzea, ikuspegi intersektzionaletik eta, batik bat, sexuaren eta generoaren ikuspegitik.
- g) Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea, eta, bereziki, euskararen erabilera bermatzea laguntza jaso duten jarduketekin lotzen diren argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean.
- h) Merkataritza-eragiketetan diruz lagundu daitezkeen gastuak ordaindu beharko dira aplikatzekoa den sektoreko araudian edo 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epetan —3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituena—.
- i) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako laguntzak jasotzeagatik ezarritako beste edozein betebeharrak.

## **Hamabosgarren. - Laguntzaren ordainketa eta likidazioa**

Emandako laguntzak ordainketa bakar baten bidez ordainduko dira, ebazpena jakinarazi eta onuradunak laguntzak onartu ostean.

## **Hamaseigarren. - Ez-betetzeak eta itzultzea**

1.- Ez-betetzeak izango dira:

- a) Dirulaguntzak lortzea eragotz dezaketen baldintzak ezkutetzea edo dirulaguntza lortzeko eskatzen diren baldintzak faltsutzea.
- b) Jasotako laguntzak osorik edo modu partzialean aplikatzea, deialdi honetan aurreikusitakoez bestelako jardueretarako.
- c) Deialdi honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea edo, hala badagokio, dirulaguntza emateko egintzan ezarritakoak ez betetzea.

- d) Laguntzaren likidazio-akordioan adierazitako zenbatekoa, hala badagokio, ezarritako epean ez itzultzea.
- e) Beste edozein entitate publikok edo pribatuk helburu bererako emandako beste laguntza batzuk eskuratzea.
- f) Nahitaez betebeharreko beste edozein, beste xedapen batek oro har hala ezartzeagatik.

2.- Kasu horietakoren bat gertatzen dela egiaztatuz gero, jasotako zenbatekoak itzuli beharko zaizkio ZINEUSKADIRi.

## **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Honako xedapen hauek izango dira aplikatzekoak: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.

Behar-beharrezkoa da datu pertsonalak ematea; izatez, datu horiek eman ezean, zure laguntza publikoko eskabidea ez da aintzat hartuko.

Oinarri hauek onartzearekin, baimena ematen duzue Zineuskadiri emandako datu pertsonalak erakunde horrek trata ditzan, betiere eskabidea tramitatu eta kudeatze aldera.

Datu pertsonal horiek legez jakinarazi behar zaizkien entitate eta/edo organismo publikoei jakinaraziko zaizkie.

ZINEUSKADI elkarteak fitxategi horren arduraduna da. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak ZINEUSKADI Elkartearen baliatu ahal izango dira. Horretarako, helbide honetara jo beharko da:

### **ZINEUSKADI elkarteak**

TABAKALERA (3. solairua)  
Andre zigarrogileen plaza, 1  
20012 Donostia

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen dute fitxategian jasotako datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei lagatzeko, betiere deialdiaren xedearekin bat datozen helburuetarako. Bestalde, ZINEUSKADI elkarteari baimena ematen diote aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna beste organismo publiko batzuetan egiazta dezan.



Fitxategi horren helburua izango da Euskadiko ikus-entzunezkoen sektoreko dirulaguntzak kudeatzea. Hura tratatzea behar-beharrezkoa da interes publikoaren aldeko zeregina betetzeko eta tratamenduaren arduradunari esleitutako ahal publikoak gauzatzeko.

Donostia, sinaduraren datan

**ZINEUSKADI elkarteko** presidentea  
Aitziber Atorrasagasti Calcedo